




LIBURUA

Betiberdina



HORMA
MARLEN HAUSHOFER
ITZULT: NORA ZUBILLAGA
 EREIN, 2023

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lehengusinarekin eta haren senarrarekin landa aldera egindako irteera batean hasi zen dena. Horiek afaltzera joan eta ez ziren etxera itzuli. Haien bila atera eta horma batekin topo egin arte ibili zen protagonista. Hortik aurrera, hormak ez dio aurrera egiten uzten eta bi pertsonaia izoztuta, hilda bezala ikusten ditu. Hormaz harago heriotza dauka zain. Beraz, hurrengo bi urte eta erdiz egutegian jaso dituen oharrek lagunduta, gertatu zaion guztia kontatzeko idazten du protagonistak. Hausnartutakoaz ere idatziko du: heriotzaz eta bizitzaz, nor den eta nor izan nahi duen... Informea idatziko du, hala dio hasieratik: *Ilundu arte idatziko dut, eta ezohiko lan berri honek nekatuta, hutsik eta logaletuta utzi behar dit burua* (11. orr).

Aurreko bizitzaz gutxi pentsatzen du. Apenas nabari duen senarraren eta alabaren hutsunea: *Haietaz ar-*

duratzen jarraitzen nuen ahalik eta ondoen, baina oso gutxitan nintzen zorientsu haien ondoan (211. orr). Aspergurak hartzen zituen haren egunak eta egunerokoa itogarria zuen. Hormak protagonista preso daukala pentsa genezake eta hala sentitzen da, batzuetan. Aurreko bizitzaren liberazioa ere sentitzen du, ordea. Eta bera libre izateko aukera. Abileziak eta trebetasunak eskuratzen ditu, eta lerroek aurrera egin ahala indartu egiten da, inguratzen duen horren ezagutza handituta.

Ustez bakarrik eta isolatuta dago, ez baitugu bukaera arte beste pertsonaiarik ikusiko mendietan. Konpainian biziko da, ordea: Luchs txakurra, Tigre katua eta Bella behiarekin batera igaroko ditu horma aurkitu eta gero egun guztiak. Zama, lotura dira animaliak, baina bizirik mantentzeko arrazoia ere badira. Haien zaintza

bermatzeko egin beharreko errutinak mantentzen du zentzudun.

Testua osorik eta jarraian idatzita dago, ez dago kapituluka egituratuta. Gehiena iraganean idazten badu ere, orainaldiko denbora ere erabiltzen du, saltoak eginez paragrafo berean. Deskribapenak bisualak izatetik aparte oso sensorialak –entzuten, dastatzen, ukitzen duena deskribatzen du– eta limurtzaileak dira. Estilo iradokitzailea du Haushoferrek. Protagonistaren egunerokoa errepikakorra, itogarria, aspergarria eta nahasgarria da (*betiberdina*). Primeran transmititzen du protagonistaren agonia, baina badago intriga eta interesa mantentzen duen elementu niretzat azpimarragarria: Bella behia. Itxaropena jartzen du berarengan. Bukararaino irakurri beharra dago distopia moduan hasi den liburuko ahots beldurti eta sosegu gabearen amaierako argi izpia ulertzeko. Ederra eta liluragarria. ●